



Konta Kontari

**UDABERRIKO
BARAZKIAK ETA FRUTAK**

LEHEN HEZKUNTZA



Udaberria martxoaren azken egunetan hasi eta ekainaren azken egunetan bukatzen da.



Urtaroaren hasiera hotza eta haizetsua da. Apirilan euria ohikoa da. Baina eguna luzatu eta maiatza iritsi ahala, eguraldiak hobera egiten du. Baratzeak prest daude udan jango ditugun barazki eta fruta gozoak bertan landatzeko. Ekaina iristean eguzkia zeruan da, egunak luzeak dira eta udako lehen haizeak datoz.

Badakizu zein fruta eta barazki biltzen dira udaberrian?



UDABERRIKO BARAZKIAK




BARATZEKO BARAZKIAK

Neguan sasoiko dauden arren, udaberriaren hasieran oraindik aurki ditzakegu azken zerbak, ziazerbak, eskarolak, arbi-garak, brokoliak, erromaneskuak, borrajak, porruak, azaloreak eta aza-buruak.



Baina udaberriko barazkirik esperoena zainzuriak dira. Horiekin batera, erromatar urazak, azak eta orburuak dira nagusi udaberriaren hasieran.




Maiatzean baba zorro berdeak daude.




Eta azkenik, udaberriaren bukaeran freskoak jaten diren lehen leka eta ilar berdeak.



TUBERKULUAK





Patata goiztiarrak.



LEKALEAK

Lekale gehienak udan biltzen dira. Hala ere, ekainean hazi lehor moduan sukaldatzen diren lehen ilarrak eta babak bildu daitezke.

Ilarrak



Babak



ZEREALAK



Lehen lekaleak bezala, ekainean zerealen lehen biltzeak egiten dira. Kasu honetan gari-gogorra, gargar-garagarra eta oloa biltzen dira.



BESTE LABORANTZAK



Gure inguruan ez da emanten, baina kanarietan azukrea udaberrian biltzen da.

UDABERRIKO FRUTAK





Udaberrian zuhaitz gehienak
loratzen dira: sagarrondoak,
udareondoak edo
melokontoneroak, besteak
beste, adarrak arrosaz eta
zuriz janzten dituzte.

Baina horrek ez du esan nahi sasoiko frutarik ez
dagoenik hilabete hauetan.
Ezagutu ditzagun!

Badakizu zein fruta biltzen dira udaberrian?

FRUITU GORRIAK


Fruitu gorriak dira udaberrian gehien kontsumitzen diren frutak.



Sandia



Marrubia




Mugurdia




Gereziak

ZITRIKOAK




Zitriko gehienak neguko frutak izan arren, udaberrian limoiak (verna mota) eta laranjak sasoian daude.

Bestalde, albertxikoaz, mizpiraz eta lehen
nektarinetaz goza dezakegu udaberriko hilabetetan.



Azkenik eta urtaro guztietan esan dugunez,
dendetan kanarietako bananak aurki ditzakegu.



AZKEN GALDERAK

Ikusi duzunez, gure baratzeak hainbat aukera eskaintzen dizkigu. Hainbeste barazki izanda, zer plater prestatuko zenuke zuk?

Ba al da asko gustatzen zaizun udaberriko errezetarik?

Zein da zure udaberriko frutarik gogokoena?

Ezagutu al duzu fruta berriren bat?

Konta Kontari

UDABERRIKO BARAZKI ETA FRUTEN BIDEOA IKUSTEKO YOUTUBEN:



@garaian-garaikoa

IPUIN, JOLAS ETA HEZKUNTZA-BALIABIDE GEHIAGO:

www.kontakontari.com